

Maitasunaren bila

Javier Rojo

"Txikira beti hordago!"
Bertol Arrieta
Erein, 2004

Zazpi ipuinez osatutako liburua argitara eman du Bertol Arrietak "Txikira beti hordago!" izenburuaren azpian. Zazpi ipuin diferente, baina gehienek errepikatzen diren planteamenduak dituzte. Istorio gehienetan gertakariak urruneko lekuetan jarri ditu idazleak, eta honekin, idazleak halaxe bilatuta edo nahi gabe efektu bikoitza lortzen duela esan daiteke. Batetik, nolabaiteko kosmopolitismoa ematen die istorioei, halako istorioak, Euskal Herrian kokatuta, hurbilegi gertatuko balira bezala, Euskal Herria leku arruntegia izango balitz bezala, istorioek sortu nahi duten lilura sortzeko. Bestetik, exotismo punttu bat ere eransten zaie istorioei. Beste ezaugarri komun bat: istorio gehienak maitasunezko istorioak dira. Maitasuna bilatzen duten pertsonaiak dira protagonista gehienak, edota maitasunik aurkitu ezean, hala holako sexu harremanekin konformatu behar diren pertsonaiak. Bertol Arrietak badaki zer den idazle trebea izatea eta "Txikira beti hordago!" irakurle askoren gustokoa izango da.

El Correo, 2004-07-28